

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Aipatutako segmentuetara iristeko, produktuaren hainbat komunikazioa eta banaketa kanal erabiliz egingo dugu, batez ere bezero potentzialek gure produktua ezagutu dezaten eta erosleek ondasunak modu erosoan eskuratu ahal izan dezaten.

Hainbat baliabide desberdinen bitartez, gure zerbitzuaren komunikazio kanal nagusia webgune bat izango da. Haiei esker, eskaintzen dugunari buruz berri eman eta informazioa zabalduko dugu. Baita ere, herritarrak gure produktua ezagutzeko, zenbait estrategia erabili beharko dira eta honen bidez, gure estrategia garrantzitsuena iragarkiak egitea izango zen.

Hasteko, webgune honetan, bezeroek gure produktua ikusteko aukera izango dute, hemen, neurketak eta betaurrekoak graduazioak izango dira ikusgai. Webgune honen bidez, bila dezakezu behar duzun betaurreko mota, webgunean egongo den bilatzailea erabiliz, honekin, zuzenean bilatu dezakezu behar dituzun neurriak eta graduazioa, beraz, lagungarria izan daiteke behar duzuna zuzenean aurkitzeko. Era berean, betaurrekoak zein materialarekin egin diren ikus daiteke, eta berezi egiten dituzten ezaugarriren bat badute, horiek ere ikus ditzakegu.

Jarraitzeko, denda fisikoa izango dugu, honen bidez, betaurrekoak ikusi eta probatu ditzakete, bezeroen zalantzak argitzeko lekua izango da eta itzulketentzako lekua aproposa izango litzateke. Denda honetan, baita ere betaurreko apurtuak ekartzeko eta biltzeko eremua da, azken finean, denda honetan egingo direlako betaurrekoen salmentak eta inperfekzio bat edukitzekotan, dendan bertan konponduko ziren produktua salgai jarri ahal izateko.

Bezeroak, gure enpresaren buruz informazioa izateko, pentsatu dugu aukera oso ona izango zela iragarkiak egitea.

Alde batetik, sare sozialak, gaur egun, iragarkiak egiteko leku aproposenetako bat da, gizaki askok erabiltzen dituztelako eta hemen publizitatea egiteko mugarik ez dagoelako. Sare sozialen bitartez, bezero gazteak lortzea izango zen gure helburu nagusia. Horretarako, ezin hobe izango litzateke gaur egun “influenter” deitzen diren horiekin kanpainak egitea, gure enpresa iragar dezaten eta hauek behar izanez gero betaurrekoak edo dirua izango zuten

trukean. Bestalde, Tik Token-en, bideo motzak eta luzeak argitaratuko ditugu. Bideo luze hauetan, puskatutako betaurrekoak Alex Gomezek nola konpontzen dituen erakutsiko dugu, ikusleei interesa eta harridura sortuz. Era berean, sare sozialetan deskontuak, zozketak eta eguneratzeak iragarriko ditugu. Laburbilduz, sare sozialen bidez nolabaiteko publizitate eta ezagutze lana burutuko dugu.

Bestalde, bezero helduagoentzat eta printzipalki gure bezeroak izango direnentzat hauek direlako gehien bat betaurrekoak erabiltzen dituztenak, sare sozialez gain, gure produktuaren edo ideiarene ezagutza irratitik ere zabalduko zen, azken finean, irratia, pertsonak produktu berriak ezagutzeko tresna garrantzitsuenetako bat delako. Iragarkiak irratitik egin ahal izateko, Euskal Herriko irratiekin akordio bat lortu beharko dugu.

Hori gehituz, zenbait azoka edo elkargune teknologikotan parte hartuko du, zaleen artean ezagunagoa izateko eta aldi berean produktua salgai jarriz, kontsumitzaileekin zuzenean elkartzeko.

Guk zabaldu nahi dugun mezua ez da betaurreko denda arrunt bat garela, betaurrekoen salmenta eskuragarria eta ekologia eskaintzen dugula baizik. Gainera, ikusmen ona izatea eskubide bat izan beharko luke, eta ez kostu eta esfortzu bat. Hortaz, helarazi nahi dugun mezua da aukera bat dela betaurrekoak modu jasangarrian eta prezio baxuan izatea.